



BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEKO

urratsak

1. URRATSA
2018ko martxo

Zaintza eta parte hartzea: zaintzakrazia parte-hartzailerantz



iparheg^{oa}

IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA





Arkaitz López Sánchez (Santurtzi, 1990) mugimendu desberdinetan militante aktiboa izan da: Santurtziko gazte mugimenduan, Ernai gazte antolakundean eta Ezker Abertzalean, Ezkerraldeko Greba-Komitean, mugimendu internazionalistan... Ibilbide hori eraldaketa sozialari oso lotutako egon daitezkeen ikasketekin bateratu du, eta azken urteetan Parte Hartze eta Garapen komunitarioko masterra (Parte Hartuz/EHU), Nazioarteko Garapen eta Kooperazioko masterra (Hegoak/EHU) eta Genero eta Feminismo Ikasketen masterra (EHU) egin ditu. Azken horren harira piztu zitzaion *zaintzakrazia* parte-hartzailearen inguruko interesa, eta hilabete honetako URRATSA bere master bukaerako lanaren laburpentxo bat da.

1. Parte-hartzeari begirada ez-androzentriko bat

Bizitzaren sostengarritasuna zerumuga askatzaileen erdigunean egon behar da eta sektore sozial herritarrak izan behar dira botere politikoaren eta botere ekonomikoaren arkitektura berria modu horizontal, parte-hartzaile eta kolektiboan eraikiko dutenak. Arkitektura berri hau eguneroko bizitzaren erreproduzioa bermatzera eta biztanleria osoarentzako ongizatea sortzera bideratuta egon behar da, berezitasunak desberdintasun bihurtzen ez diren elkarbizitza marko baten baitan, hau da, hierarkizazio edo zapalkuntza formarik existitzen ez den zerumuga anitz batean.

Dena dela, parte-hartzeari buruzko azken gogoeta batzuk konpartitzea beharrezkoa dela uste dugu. Parte hartzea eremu desberdinak (politikoa, soziala, ekonomikoa, etab.) blaitu behar dituen eta gure eguneroko bizitzan erabakiak hartzeko prozedura guztietan presente egon behar duen mekanismo demokratizatzailea dela ulertzen dugu. Horregatik iruditzen zaigu funtsezkoa parte hartzearen begirada ez-androzentriko baterantz aurrera egitea. Ez da nahikoa "emakumeak gehitu eta nahastu"¹ ariketa bat egin eta horrekin parte hartzearen eta demokraziaren inguruko ulerkeria eta praktika androzentriko eta heteropatriarkalak gainditu ditugula pentsatzea. Zalantzan jarri ezineko garrantzia du demokrazia ekonomikoari edota demokrazia politiko/instituzionalaren inguruko gaietan emakumeen paper protagonistaren aldarrikapena. Baina harago joan behar dugu, eta etxeko eta zaintza-lanak bestelako parte hartze mota bat gehiago gisa ulertu, kasu honetan bizitza duina eramatea ahalbidetzen duten

baldintza material eta afektiboen erreproduziora bideratua, eta beraz, gizonekin modu erantzunkidean konpartitu beharrezkoa, bestela emakume kopuru izugarriari bestelako eremu sozial, merkatu-ekonomiakoetan zein politiko-instituzionaletan parte hartzeko aukerak murriztuko zaizkio. Emakumeek historikoki egindako ekarpen sozio-politiko eta ekonomikoari buruzko eztabaida zabaldu behar da. Beraz, gure begirada desandrozentrizatzeak bizitza sostengatzen duten jarduerak emakumeen bizkar gainean bakarrik dauden bitartean demokrazia politiko eta ekonomikoaz hitz egitea ezinezkoa dela berrestea ahalbidetzen digu.

1.1 ¿Parte hartze askatzailea edo lan askatzailea?

Lan "erreproduktibo" gisa ulertzen dena eta parte-hartze soziopolitiko (komunitate-lana/borondatezkoa)² gisa ulertzen denaren arteko muga lauso eta labainkorra den egoera ugari daude. Daniel Raventós eta Julie Wark-ek (2016) zein Cristina Carrascok (2014b: 28) landutakoari jarraituta, gure

1 Sandra Harding-ek (1986; Pérez Orozco, 2014b: 32-n aipatua) "emakumeak gehitu" ikuspegiaren inguruan hitz egiten du; Gillian J. Hewitson (1999; ibidem) da "eta nahastu" ideia gehitzen diona. Pérez Orozco (2014b: 32) feminismoak egin beharrezkoa "guzti honen (heteropatriarkatuaren) erraiak argitze(-n saiatze)a da, dena berdin utzi eta emakumeen egoerari buruzko eranskin bat gehitu besterik egiten ez duen "emakumeak gehitu eta nahastu" estrategiatik harago joanda".

2 Duela hainbat urte 2013ko urriaren 6-13 artean burutu ziren Hego Amerikako "Red Latinoamericana contra las represas y por los ríos, sus comunidades y el agua" (REDLAR) V. Topaketetan parte hartu genuen Guatemalan, Retalteco komunitatean, las Cruces udalerrian, El Petén departamentuan. Topaketek iraun zituzten bost egunetan zehar, **komunitateko emakumeak kolektiboki antolatu ziren** jardunaldietan parte hartzen ari ziren ehunka pertsonak elikatzen zituzten bazkari eta afariak prestatzeko. Topaketen itxieran, burkide horiek eszenatokira igo eta bertaraturako guztiek txalotu zuten egindako (ordaindugabeko) lana. Emakume hauen **etxeko lan kolektiborik gabe**, topaketak ez ziratekeen posible izango. Beraz, kasu honetan gure buruei egin beharreko galderak hauek lirake: komunitateko emakumeek garatutako lan erreproduktiboak "etxeko eta zaintza lanen" kategorian sartzen dira edo "parte-hartze politiko/komunitate-lan" kategorian sartu beharko genituzke? Era berean, Euskal Herrian sexuen araberako lan banaketak eragina duen beste kasu batzuetan antzeko galderak egin genituzke: txosna bateko sukaldean txandak egitea lan "erreproduktiboa" ala parte-hartze politikoa da?



Iturria:
norbere
elaborazioa.

jendarteen berezko konplexutasunak hiru lan mota bereizi arazten dizkigula diogu: enplegua; etxeko eta zaintza lanak; eta herri parte-hartzea edo komunitate/borondatezko lana. Oraindik ere genero rolen araberrako lan banaketak dirauen topagune edota espazio politiko (ustez) askatzaileetan, askoz errazago identifika dezakegu emakumeek (eta identitate bi hauekin identifikatzen ez diren gizon edo pertsona batzuek) burututako lan "erreproduktiboaren" balio politikoa. Hau da, parte-hartzearen ikuskera androzentrikoarentzako zailagoa da emakumeek, modu kolektibo eta antolatuan, topaketa soziopolitiko batean talde handi bati jaten emateko sukaldatzean egiten duten ekarpen politikoaren balioa ukatzea. Kasu honetan hiru lan moten arteko mugak lausotzen dira, eta etxeko eta zaintza lanaz zein komunitate/borondatezko lanaz hitz egin dezakegu. Hiru kategorietan sar daitezkeen egoerekin ere egiten dugu topo zenbaitetan. Horren adibide bat liberatuta³ dagoen eta txosna batean sukalde txanda egiten dagoen kide batena izan liteke. Jarduera erreproduktzioa bideratuta dago, kasu honetan elikadurara; burututako lana boluntarioa da eta parte-hartze soziopolitikoaren baitan kokatuta dago; gainera, pertsona horrek soldata bat jasotzen du liberatu bezala, beraz txanda

hau bere "enplegu militantean" barnebiltzen diren funtzio ugarietako bat dela uler daiteke. Lan hauen kategorizazioarekin jarraitu aurretik, laburki hurrengo irudia aztertzea gustatuko litzaiguke, gure galderen erantzunak errazten ditu eta.

“LA REALIDAD” KARAKOLEKO MURAL ZAPATISTA

Argazki hau 2014ko urtarrilean ateratzeko aukera eduki genuen, Escuelita Zapatista⁴ deitutakoaren lehenengo mailan ikasle bezala parte hartzen geundela. La Realidad karakola⁵ zapatistako etxeak apaintzen dituzten hainbat muraletako bat da. Bere leloak ("arto emakumeak etorkizuna elikatzeo **autonomia** sukaldatzen"), gutxienez, bi hausnarketa garrantzitsura garamatza. Alde batetik, esaten gendozenari

3 Kontzeptu honekin mugimendu sozial eta politikoen militantzia politikoan esklusibotasunez diharduten eta horregatik soldata bat jasotzen duten kideei egiten diete erreferentzia.

4 Escuelita Zapatista-ri buruzko informazio gehiagorako ikus: <http://enlacezapatista.ezln.org.mx/2013/07/18/nuevas-fechas-para-la-escuelita-informacion-de-videoconferencias-y-de-otras-cosas/> (2018-02-02 kontsultatua).

5 2003ko abuztutik hainbat Udalerri Autonomotako (MAREZ) Kontseilu eta Batzardeak batzen dituen antolaketa maila altuago bat existitzen da. Administrazio zentro hauek "bost karakolak" izenez ezagutzen dira (ordura arte "Aguascalientes deituak"). Karakola bakoitzak udalerriaren koordinazioaz, kanpo harremanez eta justiaz arduratzen den Gobernu Oneko Junta (Junta de Buen Gobierno, JBG) propioa dauka. Karakolen jaiotzak autonomia politiko zapatistaren garapenean fase berri bat ireki zuen eta milaka aldeko-oren presentzia izan zuen (López Sánchez, 2013: 57).

jarraiki, etxeko eta zaintza lanak balioan jarri eta izaera politikoa aitortzen die: elikagaien prestaketak proiektu politiko zapatistaren (autonomiaren) eraikuntzan funtsezko paper bat duela ikusgarri egiten du. Bestetik, genero rolen araberako lanen banaketaren abolizioa aldarrikatzeko eta erreproduzioa ekoizpen prozesuaren erdigunean kokatzeko aukerarik ematen ez duela iruditzen zaigu.

Fernández Villanuevak, Artiagak eta Dávila de Leónen (2013: 78) azpimarratzen dute *“birbanatu gabe balioan jartzeak sexuen araberako lanaren banaketaren bertsio berri bat sor”* lezakeela, beraz, gure ondorioa da ez dela nahikoa soldatapeko lanaren eta ordaindu gabeko lanaren kontzeptua argitzea, azken hau ikusgarri eginez (Herrero, 2011: 192). Hala ere, ezin dugu balioan jartzearen ekimen *“hutsa”* gutxietsi. Herrero (2010b: 30) zaintza ikusgarri egitea eta politizatzea sostengarritasunerako ezinbesteko etxerako lana dela argudiatzen du, baina zaintzari kapitalaren metaketaren aurrean lehentasuna eman behar zaiola. Mural zapatistak aldarrikatzen ez duen lehentasun aldaketa hori da, hain zuzen, aurrerago sakonduko duguna, izan ere, Herrero berak dioen bezala, lehentasun aldaketa hori aldi berean apustu antikapitalista eta antipatriarkala da, hau da, **“zaintza praktika politiko antikapitalista eta antipatriarkala”** dela ulertzen da (Herrero, 2010b: 17; azpimarratua gurea da).

Mural zapatistaren adibide adierazgarria albo batera utzita, etxeko eta zaintza lanen izaera politikoa eta herritar parte hartze politikoa gisa euren balizko kategorizazioari buruzko hausnarketak berrartu nahi genituzke. Zentzu horretan, bereziki nabarmentzekoak iruditzen zaizkigu Silvia Federiciren ekarpenak. Idazle eta ekintzaile italiar honen ustez, behar duguna **“erreproduzioaren gaineko borroka kolektiboaren susperraldi eta bultzada berri bat da, gure erreproduzioaren baldintza materialen gaineko kontrola geure buruentzako aldarrikatu eta kapitalaren eta merkatuen logikari ihes egingo dioten kooperazio forma berriak asmatzea”** (2013: 179; azpimarratua gurea da). Gainera, planteamendu hau utopia ez dela gehitzen du, baizik eta planetako toki desberdinetan honezkerok martxan dagoen prozesu bat. Gobernuak egin duten krisiaren erabilera austerizidaren aurrean, Federicik **lan “erreproduktiboaren” berrantolaketara** bideratutako hurrengo praktika askatzaileak aurki daitezkeen **eredu ekonomiko berria** sortzen ari dela baieztatzen du: hirikonekazaritza eta nekazaritza-komunitarioa, lurren okupazioak, truke forma desberdinen sorrera eta elkartruke sareak, elkarrekiko laguntza, osasungintza sistema alternatiboak, etab. Eta eredu berri honek etxeko eta zaintza lanen gainean inposatutako ulerkeraren eraldia lezakeela ondorioztatuz bukatzen du, *“egun jarduera zapaltzaile eta diskriminatzaile bezala duen egituraketa apurtuz eta giza harremanen esperimenezko*

lan eremu askatzaileago eta sortzaileago gisa berraurkituz” (2013: 180; azpimarratua gurea da)⁶. Azken esaldi honetan, hain zuzen, gelditu nahiko genuke begirada. Nahiz eta egun zaintza ezin den zapalkuntza harremanetatik kanpo pentsatu (Molinier y Legarreta, 2016), gure zerumuga askatzaileen proposamenak lan eremu hau esparru askatzaileago bihurtu nahi du. Carrascok, Bosch-ek eta Grau-k (2005) marko kapitalistaren soldatapeko lana *“pobretutako lan”* bezala definitzen dute eta giza pobretzera eta alienaziora daramala uste dute. Hala ere, **feminizatu gabeko eta modu demokratikoan eta kolektiboan antolatutako etxeko eta zaintza lana, ekonomia berriaren bizkarrezur bezala kokatuta**, lan forma hegemoniko bihurtu daiteke. Kasu honetan, ez inork desiratzen ez duen baina mundu hostilean batean bizirauteko beharrezkoa den inposatutako lan forma gisa (Herrero, 2011), baizik eta beharren eta desiren asebetetzera, ongizatea sortzera eta bizitzaren erreproduziora bideratutako giza jardura bezala. Gainera, lan honek etxeak hornitzea ahalbidetzen duen eta herritarren beharrezko materialak asetzera bermatzen duen diru-sarrerak ekarri behar ditu. Baina oraino ez soldataren esklabotzaren logika pean, harreman sozio-ekonomiko demokratiko batzuen markoan soldatapeko jardura bat baino (langileen kontrolpean funtzionatzen duten estatuaren eta komunitatearen jabetza sozialeko enpresetan burututako soldatapeko lana).

Federicik (2013: 180) gure proposamen teorikoarekin bat egiten duten hainbat kasu praktikoa aurkezten ditu. *“Erreproduzioaren birjabetze eta birkolektibizatze prozesuak”* eman diren tokietan hitz egiten egongo ginatke, Txile eta Peruko *“lapiko komunak”* edo sukalde komunak adibidez. Prozesu hauek kostu *“erreproduktiboak”* murrizteko edo miseria eta pobreziatik, estatu-indarkeriatik eta gizonek modu *“indibidualean”*⁷ egikaritutako indarkeriatik elkar babesteko emakumeek aurrera eramanez eta garatutako estrategiak direla ulertu behar dugu. Federicik (2013: 252-253) praktika hauek, basoberritze kolektiboak eta lurren okupazioa eta aldarrikapenak egiten duten bezala, lotura komunak oraindik ere boteretsuak diren mundu bat erakusten dute. Eta atal honetan zehar azaldu nahi izan dugunarekin bat, **“akats bat izango litzateke jarrera aurre-politiko, “natural” edo “tradizioaren” fruitu bezala ulertzea. Egia esan, eta Leo Podlashuc-ek dioen bezala, borroka hauek identitate kolektiboa daramate euren baitan, kontrabotere bat eratzen dute bai etxe barruan bai komunitatean,**

6 Ekarpen hauek idazlearen urte desberdinetako artikulua jasotzen dituen liburu baten (Federici, 2013) bederatzigarren kapituluaren aurki ditzakegu. Kapituluaren izenburua hurrengoa da: *“Lan indarraren erreproduzioa ekonomia globalean eta bukatu gabeko iraultza feminista (2008)”*.

7 Oraingoan, ideiak azken eta hamairugarren kapitulutik hartzen ditugu, *“Feminismoa eta komunaren politikak jatorrizko metaketa aro batean (2010)”*, izenburupean (Federici, 2013).

eta ikasteko asko uzten diguten auto-balorizazio eta autodeterminazio prozesuak irekitzen dituzte" (azpimarratua gurea da). Beraz, **zerumuga askatzaileetan zaintza lana parte hartze askatzaile gisa zein lan askatzaile gisa kategorizatua izango da.**

Azkenik, hurrengo atalera igaro aurretik, ñabardura labor batzuk egin nahi genituzke. Esaten gendozen bezala, gure zerumuga askatzaile proposamenean ekoizpena bizitzaren sostengarritasunari eta pertsonen ongizateari lotutako kategoriabatizan behar da, eta gainera, naturaren erritmoarekin eta lurraldeetako baliabideekin bateragarria izan behar da. Ideia honek hurrengo hausnarketara garamatza: egun sozialki beharrezkoak diren ekoizpen batzuk eta sozialki desiragarriak ez diren batzuk daude, bizitza (gizakiena eta ekologikoa) mantentzen duten ekoizpenak, eta beraz suntsitzen dutenak (Herrero, 2014b). Bide beretik, Pérez Orozcok (2010: 8) sozialki beharrezkoa den lana eta ez dena bereizi behar direla dio. Eta sozialki beharrezko bezala definitzen du bizitza merezi duen bizitza batentzako beharrezko baldintzak sortzea ahalbidetzen duen lana. Hala ere, gaur egun, ekonomia kapitalistak suposatu zuen lurrikara kulturalaren ondorioz, ekoizpen kontsideratzen dira arma produkzioa bezalako jarduerak. Horri dagokionez, Herrero (2014a: 62) hausnartzen du "sozialki beharrezkoak ez diren sektoreetako enplegu edo jarduerak,

armagintza ekoizpena, energia nuklearrarena, automogiltza sektorea edo finantza eta higiezinaren burbuilaren ondorioz sortutako enpleguak, esaterako, ez liriteke(ela) mantendu behar"⁸. Bizitza-erakitzaile diren lanak eta bizitza-suntsitzaile diren lanak bereiz daitezke, beraz (Herrero, 2011: 192). Dena den, posizio "manikeistak" hartzetik urrun, merkatu kapitalistaren baitan, desatseginak eta gogorak izanda ere, giza-biziraupenerako beharrezkoak diren (soldatapeko) lanak daudela ulertzen dugu. Enplegu hauek, gainera, ez dira batere baloratuak (Carrasco, 2014b: 29). Zerumuga askatzaileetan lan mota hauek balioan jarriak eta aitortuak izan beharko dira. Era berean, merkatu logiken eta logika burokratikoaren arabera mugitzen diren enpresa pribatuetan gauzatzen diren enplegu izateari utziko diote. Jabetza sozial kolektiboak eta demokrazia ekonomikoak soldataren esklabotzarekin bukatuko dute, bizitzaren sostengarritasuna erdigunean jarriko duten aldi berean.

8 Herrero (2014a, 2014b) historikoki enplegu suntsiketa atzeraldi ekonomiko garaietan etorri dela adierazten du, eta beraz, hauek dira beharrezkoak ez diren/desiragarriak ez diren jarduerak ekonomikoez hitz egiteko unerik desegokiak. Hala ere, fokua planetaren mugetan eta giza ongizatean jartzen baldin badugu, jarduerak batzuk ezinbestean murriztu behar dira orokorrean bizitzarentzako kaltegarriak direlako eta ez dituztelako giza desira eta beharrezkoak asetzen.

2. Etorkizuneko balizko agertokiak

Jendarte demokratiko, justu eta sostengarrietarantz bidea egitea ez da utopia, baizik eta inplikaturako alderdi desberdinen arteko indar korrelazioaren arabera afera bat. Gaur gaurkoz ez dirudi oso perspektiba itxaropentsuak eduki ditzakegunik, jendarte kapitalista, heteropatriarkal eta kolonialistaren ber-armatze une bat bizitzen ari garela kontuan izanda (de Miguel, 2014: 200), mugimendu sozialek eta herri bultzada kolektiboak eragin eraldatzaile txikia dutena. Cristina Carrascoren (2001) proposamen analitikoari jarraiki, zaintzaren antolaketa sozialaren etorkizuneko agertoki posibleak hiru aukeratan laburbildu daitezkeela uste dugu:

- Lehenengo agertoki posiblearen funtsa gaur egungo ereduaren kontsolidazioa da. "Alternatiba" pesimista honetan helburu nagusia kapitalen mugagabeko metaketak eta irabaziak eskuratzeak izaten jarraitzen dute. Gizonek euren soldatapeko merkatuko parte hartzea mantentzen dute jarduera nagusi bezala eta emakumeek lanaldi bikoitza mantentzen dute. Eszenatoki honetan errenta erdi eta altudun familietako emakumeek konponbide pribatuak bilatu eta "euren" lan karga arin dezakete merkatuan ondasun eta zerbitzu gehiago eskuratzuz, herritar klaseetako emakumeek nekez egin ahal izango duten aukera⁹. Carrascoren ustez (2001: 23) litekeena da gero eta ohikoagoa izatea *"errenta altuenak dituzten emakumeek euren etxeko lanen zati bat herrialde txiroagoetako beste emakume (eta gizon) etorkin batzuegan uztea, eta horrela arazoa ez litzateke konpontzen egongo, baizik eta dimentsio zabalagoa*

hartzen, nolabait, globalizatzen egongo litzateke". Zaintza kate globalek hedatzen jarraituko lukete.

- Bigarren balizko egoera ez da aurrekotik bereziki desberdintzen. Honetan mamia etxeko/familiako jarduera zehatz batzuk lagunduko dituzten politika publikoak martxan jartzean legoke, horrek emakumeengan jarritako lan-zama arinduko luke eta. Hainbat adibide aipa ditzakegu: haurtzaindegi kopuru altuagoa; pertsona adindu, gaixo eta aniztasun funtzionala dutenentzako arreta zerbitzu zabalagoak; emakumeentzako enplegu politika espezifikoak, etab. Carrascok (2001) zentzu honetan kokatzen ditu **kontzilio** politikak eta emakumeen egoera sozio-laboral-familiarra politika hauetara bideratutako baliabideen menpe egongo litzatekeela seinalatzen du. Politika hauek ekonomia feminista integratzailea deitutakoaren baitan egongo lirateke (Pérez Orozco, 2014b). Aurrerago ikuspegi honen inguruko ñabardura batzuk landuko ditugu.
- Gure zerumuga askatzaile proposamena hirugarren eta azken agertoki posiblean kokatzen da. Hau izango litzateke alternatibarik optimistena, paradigma aldaketa batez ari da eta: bizitzaren sostengarritasuna eta erreprodukzioa zentroan jartzea.
- Bizitzaren sostengarritasunak zer esan nahi duen azaltzen hasiko ez bagara ere, bai egingo ditugu bigarren agertokiari buruzko zehaztapen batzuk. Kontzilioaz hitz egitea ez da posible, izaera konponezina duen kontraesan global bat definitu dugu eta: kapitalaren metaketa prozesu heteropatriarkala, bizitza zaintzeko prozesuaren aurrean. Matxalen Legarretak azaltzen duen bezala (2014: 22), *"kontrajarriak diren helburuak dituzten bi logika*

⁹ Adierazpide honekin ez ditugu zaintza lanak eta emakumeak identifikatu nahi. Emakumeek lan "erreproduktiboaren" zati handiena gauzatzen dutenaren jakitun, etxeko lanak egiteko pertsona bat (emakumea, batez ere) kontratatzeaz arduratzen direnak ere eurak izaten dira. Bestela esanda, haiek arduratzen dira jendarte heteropatriarkalak ezarri dien lan batez merkatuaren bidez libratzeaz.

kontziliatzea ez da bideragarria". Beraz, lehentasunak ezarri behar dira: edo jendartea eta ekonomia "zaintzen denboren beharrezan erreferentzia gisa hartuz antolatzen dira edo ekoizpen kapitalistaren denboren galdapenen arabera antolatzen dira" (Carrasco, 2001: 23).¹⁰

¹⁰ Aipatutako testuan Carrascok (2001) elkarren aurka dabilzan bi logikaren ezinezko adiskidetzeari buruz hitz egiten du (zaintzarena eta kapitalarena). Lehenago esan bezala, azken urteetan ekonomia feministatik prozesuen talkaz hitz egiteko joera egon da logikaren talkaz beharrez, zaintzaren logikak zaintzaren etika erreakzionario edo atzerakoi bihurtzeko arriskua du eta (Pérez Orozco, 2014a, 2014b).

Gure lan teorikoak herrien eta pertsonen aniztasuna errespetatzen duen zibilizazio alternatiba feminista eta antikapitalista gisa ulertzen dugun azken agertoki posible honen inguruko eztabaida aberastea izan du helburu. Aurreko atalotan laburki zaintza eta bizitzaren sostengarritasuna nola ulertzen ditugun eta gure parte hartze herritar proposamena zein den azaldu ostean, hurrengo orriotan **parte-hartzea eta zaintza**, zein demokrazia eta sostengarritasuna kontzeptu eta praktikak uztartzen ahaleginduko gara.

3. Zaintza birbanatzen edo zentroan jartzen?

Ikerketa historikoez zaintzaren gaineko naturalizazio eta esentzialismo faltsuak zalantzan jarri dituzte eta historian zehar lan "erreproduktiboak" bizi izan duen aldagarritasun handia agerian jarri dute, zeintzuk izan ziren antolaketa forma posible horiek planteatzeko bidegurutzan eta zergatik gailendu zitzaizkien forma batzuk gainerakoei. Era berean, ikuspegi historikoak jarduera hauen balio-galera merkataritzako-ekoizpenaren garapenaren eskutik etorri zen eraikuntza soziala izan zela frogatu du eta eredu hori "oinarritzen duen sexu-bereizketaren sustrai sakonen gaineko argia eskaintzen du" (Carrasco, Borderías y Torns, 2011: 16). Laburki azalduko dugu egungo zaintzaren -jarduera pribatizatua, "feminizatua" eta ezkutua- antolaketa soziala prozesu historiko baten fruitua dela. Nabarmendu dezakegu jendarte aurre-industrialetan familiek aurrera eramandako ekoizpen prozesuek zaintza lanak etxeko lanen erdigunean kokatu zituztela (Vanek, 1974; Carrasco, Borderías y Torns, 2011: 19-en aipatua). Aro garaikidean, etxekotasunaren ideologia neoliberal berriak emakumeak zaintza-ekonomiaren arduradun "natural" gisa kokatu zituen, eta honek amatasunaren esangura eraldaketa prozesu bat eragin zuen, berau lan "produktiboekin" gatazkan ulertuz, ordura arte ezezaguna zen gatazka bat¹¹. Era berean, amatasunaren ulerkerak berriek identitate femenino berrien eraikuntza ere eragin zuten.

Zaintzaren antolaketa sozialaren izaera historikoa, eta

beraz, koiunturazkoa argitzeak bestelako etorkizun batekin "amesten" laguntzen digu. Dena den, erabiltzen ditugun kontzeptuen arabera gaitasun handiagoa edo txikiagoa izango dugu ekonomia feministatik proposatzen den paradigma aldaketa transmititzeko. Artikulu hau bukatzeko, bereziki parte hartze herritarra eta zaintza lana adierazpen bakar batean biltzeko asmo askatzailearekin jaiotzen diren bi kontzeptu proposatuko ditugu. Hau bezalako ikerketa lan batek dituen mugez kontziente gara. Hala ere, dokumentu hau eztabaidara irekita dauden eta kritikei zein aldaketei irekita dauden bi kontzeptu proposamenekin bukatu nahi genuke. Gainera, kontzeptu ugartasunak feminismoen eta antikapitalismoen lan teoriko, analitiko eta politikoa errazten duela uste dugu, baita barnebiltzen ditugun eztabaiden zabaltasuna eta konplexutasuna erakutsi ere.

Lehenik eta behin, gure proposamenaren xedea **Zaintzaren Parte Hartzeko Birbanaketaz** hitz egitea da. Adierazpide berean zaintza eta parte hartzea batzen dituen eta zaintza kolektibizatze beharra, eta beraz, "desfeminizatze" eta demokratizatze, ikusgarri egin nahi dituen kontzeptua da. Maila mikroari (etxeak edota komunitateak) zein makroari (zerbitzu publikoak, Estatuak, etab.) egiten dio erreferentzia. Era berean, komunikatzeko potentzialitate handia duen kontzeptua dela uste dugu, ikasteko eta transmititzeko erraza.

Kontsultatutako bibliografia luzean zehar antzeko adierazpideekin egin dugu topo. Adibide gutxi batzuk bakarrik jartzearren, María Jesús Izquierdok (2004: 01) "zaintzaren sexismo eta merkantilizaziotik bere sozializaziorantz" aurrera

11 Carrasco, Borderías eta Torns-ek (2011: 18) egungo amatasunaren gaineko ikuskera modernoak desmitifikatu eta esentzialismo biluztu behar direla eta amatasunaren gaineko ulerkerak eta praktiken klase-aldagarritasuna zein aldagarritasun historikoa, 70eko hamarkada hasieratik bertatik, historiografia feministaren azterketa lerro nagusietako bat izan dela mahai gaineratu behar dela diote.

egitea proposatzen du. Herrerok (2011: 195), berriz, "zaintzaren bidezko kudeaketaz" hitz egiten digu.

Hala ere, gure ustez, sozializazioaz, bidezko kudeaketaz zein "Zaintzaren Parte Hartzeko Birbanaketaz" hitz eginda ez dugu feminismoetatik eta bereziki hausturaren ekonomia feministatik planteatzen den paradigma aldaketaren sakontasuna adierazten. Hau da, zaintza sozializatzea ez da nahikoa, gakoak berau "epizentro" bilakatzean edo lehenestean datza. Ondorioz, zaintza eta bizitzaren sostengarritasuna ekonomiaren eta zerumuga askatzaile berrien bizkarrezurra izateko beharra aditzera ematen duten kontzeptuak proposatu behar ditugu.

Baliteke zaintzaren parte hartzeko birbanaketaz hitz egiteak Carrascok (2001) proposatutako bigarren agertoki horretara gehiago hurbiltzea. Bestela esanda, kontzeptu honek arreta gehiago jartzen du kontziliazioaren logikan, merkatuen desnaturalizazioan eta deszentralizazioan eta zaintzaren erdiguneratzean baino.

Zaintzen denborek nekez etorri ahalko dute bat erlojuaren denborekin edo merkatuaren denborekin. Esan dezakegu urtean zehar aldatzen doazen zikloen eta bizitzaren uneen arabera moldatzen direla. Herrerok (2011) zaintzen erritmoak etengabe ezusteko gertaeren mende daudenez "aurreikusiezinak" direla azaltzen du. Denbora hauek ezinbestekoak dira bizitzaren erreproduktzioarako, eta bere metaketaren logikari ondo jarraituz, merkatuak ez ditu zahartzea, aldaketa emozionalak, heziketa, osasun egoera, etab. bezalako fenomenoak aintzat hartzen. Bizitzaren eta merkatuaren denborak ez daude doituak, eta horregatik "kontziliazio politikak lehenengoaren denborak bigarrenaren beharrezan egokitzea bilatzen dute, baina ez dira egiteko gai. Ikusi dugu dagoeneko merkatuak eta bizitzak bat egiten ez badute, lehenengoak irabaziko duela" (Herrero, 2011: 186). Zentzu berean, Carrascok (2001) bizitzaren sostengarritasunaren ikuspegitik familia-bizitza eta laborala "kontziliatzeko" egungo politikak zentzua galtzen dutela baieztatzen du, "ez diotelako erroko arazoari heltzen, baizik eta helburu nagusi bezala irabaziak eskuratzea mantenduta, gutxieneko doiketak egitea. Hau da, zaintzaren denborek ekoizpen kapitalistaren denborei egokitzen jarraitu behar dute" (Carrasco, 2001: 23). Gainera, kontziliazio politika gehienak enplegua duten emakumeei zuzenduta daudela eta sexuaren arabera lan banaketa edo genero rol tradizionalak zalantzan jartzen ez dituztela salatu beharrekoa da (Legarreta, 2014), bestela esanda, ez dute ordura arte dohainik lan egiten ez zutenak horretara jartzeaz hitz egiten: gizonak eta sektore publikoa. Legarretak ondorioztatzen du, beraz, kontziliazioak ez duela lanen eta denboren banaketa justua sustatzen maila sozialean,

ezta etxeko/familiako espazioan erantzunkidetasuna bultzatu ere. Paragrafo luze honi kontziliazio politiken emaitza errealekin bat ez datorren ekonomia feminista integratzailearen posizionamendu analitikoa eta politikoa ondo laburtzen duen esaldi batekin bukatuko dugu: "Funtsezko galdera ordaindutako zein ordaindu gabeko lanen bidezko birbanaketa nola lor dezakegun da". Laburbilduz, erantzunkidetasun¹² baldintzetan oinarritzen den ikuspegi honek ez du bizitzaren sostengarritasuna erdigunean jartzen duen paradigma aldaketa bat antzematen, enpleguaren bidezko emantzipazio estrategia batengan konfiantza mantendu baino. Hala ere, berriro ere posizionamendu manikeistetan ez jausteko beharrezan gaude. Fiskalitate progresiboa, esaterako, kapitalari baliabideak kendu eta modu justuagoan birbanatzeko zerga-tresna da. Dena den, zerga sistema birbanatzaile eta justu baten alde ari garenean, ez dugu begibistatik galtzen "azken" helburua ekoizpen bitartekoen jabetza pribatuarekin bukatzea dela. Modu berean, kontziliazio politika publiko batzuek epe labur eta ertainean emakume askoren bizi baldintzak hobeto ditzakete. Horregatik ez dugu ahaztu behar gure xede estrategikoa bizitza onaren eraikuntza kolektibo eta herritarra dela.

Horrez gain, ezin ditugu ahaztu irabazien metaketaren logika apurtzen eta etxeko eta zaintza lana sozializatzen saiatu diren esperientzia historikoak. Euren artean, Sobietar Iraultzaren lehenengo urteetako gogo sozializatzailea topatzen dugu. Egungo feminista marxista Cinzia Arruzzak (2010: 43) orduko proposamen eta idazki boltxebikeetan emakumeen emantzipazioaren ardatzentzako oinarritzko bi elementu zentralak aipatzen direla azaltzen du: etxeko eta zaintza lanekiko emakumeen askapena; eta gizonekiko independentzia ekonomikoa "ekoizpen" jardueran parte hartze osoa izanda.

Gera gaitezen une batez lehenengo elementuan. Boltxebismoak lan "erreproduktiboarekiko" askapena bere banaketa progresiboaren bidez lortu behar zela ulertzen zuen, hau da, "kolektibitatearen zati batek zaintza lanak bere gain hartuta, horrela etxeko hormen artean garatzen zen afera pribatu bat izateari utziz" (Arruzza, 2010: 43). Erronkak helburu horren lorpena bermatuko zuen zerbitzu sare baten sorreran zatan: haurtzaindegiak, jangelak, garbitokiak... Emakumeek pairatzen zuten zapalkuntza/esplotazio bikoitza (generoa eta klasea) etxeko lanen sozializazioaren bidez gaudituko zen, ez hainbeste familiarren baitako genero rolak eta sexuaren arabera lan banaketa zalantzan jarrita. Izan ere, Arruzzak berak aipatzen du naturalizat hartuko lukeela

12 Pérez Orozcok (2014b: 51), ikuspegi feminista integratzaileari erreferentzia eginez, azaltzen du haren "apustu nagusia erantzunkidetasuna dela, bizitza laboralaren eta familiarren kontziliazio proposamenaren hutsuneak bete nahi dituen kontzeptua"

garbitokietan, jangeletan edo haurtzaindegietan zaintza lanak garatutako zituztenak, Estatu Proletarioaren soldatapeko langile gisa, eta ez emazte edo ama gisa, hala ere denak emakumeak izatea, oro har jarduera hauetarako prestutasun handiagoa zutela ulertzen da eta. Alexandra Kollontai berak, historiako feminista sozialista bikainenetariko batek, antzeko proposamenak egin zituen. Idazle sobietarrak erregimen kapitalistak emakumeak familiarik kanpo, etxetik kanpo, ordaindutako lana bilatzera behartu zituela salatu zuen, horrela gizonak (termino ekonomikoetan) familiaren sostengu ekonomiko "bakarra" izateari uzten ziolarik. Hala ere, kapitalismoak ez zituen emakumeak etxeokonde eta ama/emazte gisa esleitu zitzaizkien zaintza lanak arindu (Kollontai, 1918). Errealitate honen parean, Kollontai zioen: "etxeko lanak forma indibidualean desagertzen hasi dira eta egunez **egun etxeko lan kolektiboak** ordezkatzeko ditu, eta lehenago edo beranduago, emakume langilea bere etxeaz arduratu beharko ez den egun bat iritsiko da. Biharko **Jendarte Komunistan**, lan hauek espezifikoki jarduera hauetaz arduratuko diren **emakume langile kategoria berezi** batek burutuko ditu" (Kollontai, 1918; azpimarratua gurea da). Zentzu berean, emakumeek euren aisialdi ordu murrizak sukaldean igaro beharko ez dituztela dio, Jendarte Komunistan herri osoa jatera joan ahal izango den jate publikoak eta sukalde zentralak egongo dira eta.

Kollontairen emantzipazio proposamen feministatik arreta deitzen diguna, ezinbestean historikoki kokatu behar dugun kontraesan bat da. Gure protagonistaren arabera Estatu Sozialistan etxeko eta zaintza lanak profesionalizatu egingo dira eta hauek garatuko dituzten pertsona kategoria berezi bat sortu. Hala ere, ez du planteatzen enplegu funtzio berri hori emakume eta gizonen artean modu orekatuan banatu behar denik, baizik eta emakume langileen kategoria berezi bat arduratuko dela horietaz. Horri dagokionez, De Miguel-ek (2005: 12) azaltzen du "teoria feministen hasierako formulazioetan ia beti existitzen d(ela) sexu araberako lan

banaketaren nolabaiteko onarpena: eskubideen aldarrikapena ezin erradikalagoa izanda ere, ama eta emazte kondizioak ozta-ozta jar daitezke zalantzan. Lanaren banaketa sexualaren erroa ez da XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadako *feminismora arte zalantzan jarriko*". Norabide berean, Cova-k dio (1991; Carrasco, Borderías eta Torns, 2011-en aipatua) gerra-arteko garaireneko aurreko korronte feminista batek ere ez zuela familiako lanen generoaren araberako banaketa eredu zalantzan jarri, eta are gutxiago ordaindu gabeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna planteatu.

Sobietar Batasunaren¹³ ereduak bizitzaren sostengarritasunaren ikuspegitik, zaintza sozializatzea nahikoa ez dela ikusteko balio digu. Lehenago ere aipatu dugu kontziliario politikek ez diotela arazoaren erroari heltzen eta kapitalen metaketa helburu zentral bezala mantenduta gutxieneko doiketak bakarrik proposatzen dituztela. Kasu horretan, zaintzen denborek ekoizpen kapitalistaren denborei moldatzen jarraitzen dute (Carrasco, 2001). Kasu sobietarrean esan genezake zaintzen denborak ekoizpen sozialistaren erritmo eta denboretara egokitzen direla, zaintza ez baita ekonomia antolatzeke ardatz gisa kokatzen. Beraz, ekoizpen bitartekoen jabetza kolektiboa izatea, zaintza sozializatea (profesionalizatzea, termino sozialistetan) eta instituzionalizazio berria horizontala eta parte hartzailea izatea ez dira nahikoa. Gure zerumuga askatzaile proposamenak bizitzaren sostengarritasunera eta erreproduktoria bideratuta egongo den ekoizpen eredu antikapitalista marrazten du (baliabideen kudeaketa demokratikoa eta kolektiboa), zeinetan emakumeen lanaren esperientzia historikoa ez den askatu behar den zama bezala ulertzen, biztanleriaren ongizatea eta bizitza erreproduzitzea bermatzen duten jarduera multzo bezala baizik. Eraldaketa prozesu bat erradikalki herritarra, partizipatiboa eta demokratikoa izan behar da.

13 SESB-en ondoren egondako genero eta sexu eskubideen deriba aztertzeke ikus: Arruzza (2010).

4. Zaintzakrazia parte-hartzailea

Zaintzari dagozkien ekonomia feministaren aldarrikapenak hainbeste joan dira birformulatzen, arrakala bat ireki dutela. Azken paragrafoetan azaldu dugunari jarraituz, alde batetik Pérez Orozcok (2014b: 220) zaintzarako zerbitzu publikoen alde eta kontziliazio politiken alde apustu egiten duten, baina aldi berean helburu nagusitzat enplegua duten, bertsio instituzionalagoen inguruan hitz egiten digu.

Bestetik, hausturaren ekonomia feministatik norabidea aldatu da: "helburua dagoeneko ez da gure indarrak enpleguan jartzen ditugun bitartean zaintza gutxitzea edo kolektibizatzea, baizik eta **merkatu kapitalistak erdigunetik kentzea**, baita euren logikak gure desirak markatzeko ardatz gisa ere. **Zaintza erdigunean** kokatzea da helburua" (Pérez Orozco, 2014b: 220; azpimarratua gurea da).

Azken ikuspegi honekiko hurbila den begirada batetik saiatu gara, hain zuzen ere, ikerketa lan hau idazten. Ondorioz, proposatzen dugun bigarren kontzeptua hausturaren ekonomia feministaren zein antikapitalismo "historiko" desberdinen emantzipazio grina bateratzen saiatuko da.

Oraingoan proposatzen duguna lortu nahi dugun zerumuga askatzaile proposamena **Zaintzakrazia Parte-Hartzailea** deitzea da¹⁴. Hitz joko honek kontzeptu bakarrean batu nahi ditu herritarren parte-hartze protagonista eta zaintza. Hala ere, "Zaintzaren Parte-hartzezko Birbanaketa" kontzeptuarekin alderatuta, ideia honek bai adierazten du merkatuak zentrotik kentzeko eta zaintza lanak erdigunean kokatzeko beharra. "Zaintzakrazia"

14 Berriro ere azpimarratu nahi dugu ikerketa honek neologismoak proposatzeko orduan dituen mugak. Edonola ere, kokatutako kontzeptu proposamena bota nahi dugu zerumuga askatzaileen inguruko eztabaidak aberasteko asmoz.

hitza Brujas y Diversas Kolektiboari (2015: 57) hartzen diogu maileguan: "Zaintzakrazia¹⁵ aldarrikatzea izango litzateke kontua, erdigunean zaintza eta ez merkatuak jartzen dituen demokrazia bat, zeinetan zaintzeko, ez zaintzeko, zainduak izateko eta zainduak ez izateko eskubideak aurreikusi eta bermatzen diren¹⁶". Bestalde, "parte-hartzaile" adjektiboa gehitzea "Demokrazia Parte-hartzaileari" keinu bat da. Izan ere, bizitzaren sostengarritasuna/zaintza eta demokrazia parte-hartzailea zerumuga askatzaile berrien 6 indar-ideietako bi dira (Fernández, Piris eta Ramiro, 2013). Horregatik, kontzeptu hau, eraikuntza fasean eta beraz bukatu gabea, bi indar-ideiok potentzialitate subertsibo eta gaitasun komunikatibo handiko kontzeptu bakar batean batzeko ahalegina da. **Proiektu politiko eta ekonomiko feminista eta antikapitalista** baten ispilu izateko anbizioarekin jaiotzen den kontzeptua.

Desberdintasun sistemikoak eragiten dituzten egitura sozio-ekonomiko eta sozio-sexualean gainean eraikitako bitzita politikoa forma demokratikoan antolatzea posible dela uste duen teoria politiko-neoliberalaren aurrean (Fraser, 1992: 12), **zaintzakrazia** parte-hartzailea proiektu askatzailearen izaera politiko zein ekonomikoari erreferentzia egiteko asmoarekin jaiotzen da. Parte-hartzearen eta demokraziaren ulkerera holistiko, oso eta orokor batek instituzionalizazio parte-hartzaile berriaz hitz egitera garamatza, batetik, eta baliabideen kudeaketa demokratiko eta deszentralizatuz, bestetik. Eremu politiko-instituzionalean, intentsitate baxuko demokraziaren aurrean, gobernu parte-hartzaile,

15 Euskarazko bertsioan erabilitako kontzeptua "zaindukrazia" (2015: 141) da eta gramatikalki zuzenagoa iruditu zaigulako erabiltzen dugu hemen "zaintzakrazia".

16 "Zaintzakrazia" kontzeptuaren kaxotzak zein kurtsiba jatorrizko bertsioak dira.

demokratiko eta gardenak¹⁷ proposatzen ditugu. Ekoizpen bitartekoen jabetza pribatuaren aurrean hauen jabetza soziala proposatzen dugu Demokrazia Ekonomiko Parte-Hartzailearen adierazle goren gisa. Hortaz, Zaintzakrazia Parte-hartzaileak **antikapitalismo** "historikoen" helburu estrategikoak berreskuratzen ditu, hau da, klaseak abolitu eta desberdintasun sozioekonomikorik gabeko jendarte berri bat eraikitzeke grina komunista eta anarkista. Baina kontzeptu honek feminismoetatik eta emakumeen esperientzia historikoetatik borroka antikapitalista birdefinitzeko potentzialtasuna ere badauka. Carrascori jarraituz (2013, 2014b), etxeko eta zaintza lanak izango dira, euren konnotazio subjektibo guztiekin, ekonomia feministak sistema kapitalista heteropatriarkalarekiko apurketa oinarritzeko ardatza. Antzeko zentzuan, Pérez Orozcok eta Lafuentek (2013) defendatzen dute kapitala-bizitza gatazkaren gogortasuna bereziki garatzen den ezkutuko eta ordaindu gabeko esferak ezegonkortzen ez dituen borroka antikapitalistak nekez jarriko duela statu quo-a¹⁸ benetan kolokan. Edo Herrerok (2010b, 2011) dioen bezala, zaintza ikusgarri egitea, politizatzea, duintzea eta lehenestea ezinbesteko zeregina da bizitzaren sostengarritasunarentzat. Lehentasun aldaketak aldi berean antikapitalista eta anti(hetero)patriarkala den paradigma aldaketa bat erakusten du. Ekintzaile ekofeministak antikapitalista dela ondorioztatzen du merkatuak lanari ematen dion zentzua eta balioa ahultzen duelako, merkatuak ordaindu gabeko lan "erreproduktiboarekiko" duen menpekotasuna salatzen duelako eta hazkunde nahia baldintza duinetan bizitza guztien defentsarako konpromiso irmo batengatik ordezkatzeko duelako.

Horrez gain, Zaintzakrazia Parte-hartzailea genero eta sexu desberdintasunak ezabatuko dituen proiektu **feminista** izateko bokazioarekin ere jaiotzen da. Sistema heteropatriarkalak botere posizioak aintzatesten dizkie gizonari, eta, lanari dagokionez, sexuen arabera lanaren banaketan islatzen da hori (Carrasco, 2014b). Zaintza lehenestea eta ardura politiko eta sozial bezala definitzea, beraz, proposamen antiheteropatriarkala eta feminista da genero rolen arabera lan banaketak inposatutako hierarkiari eta ordenari, gizonen nagusitasunaren zutarrari, aurre egiten dien heinean (Herrero, 2010b, 2011). Egun, bizitzari irtenbidea erantzukizun hauek pribatizatutako, "feminizatutako" eta ezkutututako esfera sozioekonomikoetan zokoratzen ematen zaio. Heteropatriarkatuak esfera hauen existentzia eta mantenduko

dituzten subjektuak bermatzen ditu, hau da, "kapitalismo heteropatriarkalak ez ditu gauzak bakarrik produzitzen: subjektibitateak, desirak, beharrak, identitateak ere bai" (Pérez Orozco, 2014b: 78). Ondorioz, lanaren banaketa sexualarekin bukatzeak eta zaintza erdigunean kokatzeak, ekonomia berriaren ardatz egituratzaile bezala, zalantzarik gabe klabe askatzaileetan ondorioak edukiko ditu genero identitateen eraldaketan. Edonola ere, genero eta sexu identitateen eraldaketa ez da egiturazko aldaketen edo aldaketa materialen ondorio mekanikoa izango. Horregatik gehitzen da begirada transfeministetatik esfera ikusezinak zalantzan jartzeko, osatzen duten binarismo heteronormatiboa jarri behar dela auzitan (Pérez Orozco eta Lafuente, 2013), hau da, identitateen eraikuntza sexuatuaren eztabaida kolektiboan sakondu behar dela (autosufizientzia maskulinoa immolazio femeninoaren aurka). Alde batetik, zaintza maskulinitate hegemonikoarekin bateragarria ez dela ikusten dugu (Fernández Villanueva, Artiaga eta Dávila de León, 2013); bestetik, emakumeak zapaltzen dituen zaintzaren etika atzerakoa mantendu eta birdefinitzen da. Begirada honetatik identitate biak kaltetuta daude, eta beraz, deseraiki behar dira. Hau esanda, ez dugu genero kategoria erabiltzen emakume subjektu indartsuan oinarritutako identitate estatiko, dikotomiko eta koherenteei erreferentzia egiteko (Hernando, 2008), generoa errealitate performatibo gisa ulertzen dugu, zeinetan matrize heterosexualaren arabera, **emakume izatea** edo **gizon izatea** zer den etengabe berreraikitzen den araua den (Butler, 1990, 1993, 1997; Pérez Orozco, 2014b-n). Ondorioz, genero identitateen eraldaketa zabalago baten aldeko apustua egin behar dugu, zeinetan emakumeak ez diren "maskulinizatzen" ezta gizonak "feminizatzen" ere (Hernando, 2008), baizik eta pertsona oro pertsona autonomo eta independente gisa garatzen den, horrela **generoen desagerpen progresibo baterantz** bidea eginez. Bestela esanda, "sexuatu gabeko identitateak eraikitzea eta maskulinitate/feminitate kortse binario heteronormatiboa lehertzea dira gakoak" (Pérez Orozco, 2014b: 274). Beraz ez dugu genero parekidetasunaz hitz egingo, generoa deseraikitzeaz baino. Julieta Paredes (2010) feminista indigena komunitarioak generoaren salaketa genero berdintasunaren aldeko aldarrikapen bihurtzeak nahasmen teorikoa eta emakumeen desmobilizazio politikoa ekarri zituela dio. Generoa feminismoek erabilitako kontzeptu politiko bezala jaio zen, eta bere zentzu politikoan, harreman kategoria bat salatzen du eta emakumei sistema heteropatriarkalak ezarritako menpekotasuna "agerian" uzten du. Paredesek (2010: 62) gehitzen du generoa ez dela kategoria deskribatzaile bat, ezta bere horretan determinista ere, baizik eta "gizonekiko emakumeen menpekotasun harremanak" salatzen dituen harreman-kategoria politiko bat, eta zehazten du "sistemaren mekanismoetako bat den menpekotasun

17 Intentsitate baxuko demokrazia modernitate kapitalistaren identitate ikurretako bat da.

18 Federik (2013:217) gogora ekartzen digu feministek historikoki ukatu dutela marxismoak soldatapeko lanari eta merkantzien "ekoizpenari" eraldaketa sozialaren funtsezko elementu gisa historikoki eman dien zentraltasuna.

sozial honi, errepikatzen dugu, genero deitzen diogula". Feminista aymararen planteamenduekin bat berdintasun gisa ulertutako genero parekidetasunik posible ez dela ulertzen dugu, genero maskulinoa femeninoaren kontura jaio, eraiki eta elikatzen da eta, beraz borrokaren funtsa **generoa gainditzea** da, bidegabeko errealitate historikoa den heinean. Azkenik, Paredes-en ondorioa da afera "eraikuntza historiko eta kulturala den generotik harago joatea dela, eta **"wawak" hezi eta sozializatzeko genero gabeko formak** berriak martxan jartzea. Feminismotik nahi dena dagoeneko **ez femeninoak ez maskulinoak izatea da. Generoak eraikitako botere harremanekin bukatu nahi dugu eta ez generoa parekidetasun kontrairaultzaile bezala mantendu"** (2010: 66; azpimarratua gurea da).

Azaldu bezala, Zaintzakrazia Parte-hartzaile kontzeptuak proiektu politiko eta ekonomiko feminista eta antikapitalista bati erreferentzia egin nahi dio. Hala ere, ezin diogu ezikusia egin gure begirada mendebaldeko kutsuz blaituta egoteari, kutsu eurozentrikoa, urbanoa eta koloniala. Horregatik agian egokiagoa izango litzateke **Zaintzakrazia Parte-hartzaileez** hitz egitea. Pluralarekin egun zerumuga askatzaileetarantz, mundu askorentzako tokia dagoen mundu baterantz, bidea egiten dabilzan errealitate anitzen existentzia erakutsi nahi dugu.

Zerumuga askatzaileen marko honetan, hain zuzen ere, baieztatu dezakegu **"zaintza praktika politiko antikapitalista eta antipatriarkala dela"** (Herrero, 2010b: 17), jarduera zapaltzaile egituraketarekin apurtu eta "giza harremanentzako espermentaziorako lan esparru askatzaileago eta sortzaileago bezala ikusaraziz" (Federici, 2013: 180). gainera, lehenago ere aipatu dugu zaintzaren etika zaintza-lanaren bidez garatu eta oinarritzen dela. Zentzu horretan Molinier eta Legarretak (2016) ondorioztatzen dute bereizketa hau aurrerapauso garrantzitsua dela, lana eta zaintzaren etika ez banatzeko eta azterketa teorikorako aukera irekitzen dute eta. Gure zerumuga askatzaile berrien proposamenean ekoizpen prozesu osoa zaintza eta erreproduktoria bideratuta dago. Egundun bai maskulinitatea (zaintzaren ukazioa eta buruaskitasun

ideal faltua) bai feminitatea (zaintzaren etika atzerakoia) kaltetutako generizatutako identitateak¹⁹ direla baldin badiogu, zaintza erdigunean kokatzen duen etorkizuneko jendarteak pertsonok, jaio garen gorputza kontuan hartu gabe, generizatu gabeko zaintzaren etika bat garatzea ahalbidetuko du. Ondorioz, proiektu politiko demokratiko eta askatzaile feminista eta postkapitalista batean zentzua hartzen duen eta hegemonikoa bihurtzen den zaintzaren etika feminista bati buruz ari gara. Edo geroa gainditu eta "wawak" genero gabe hezteaz ari garenez, agian egokiagoa litzateke zaintza esentzializatzeko eta hipertrofiatzeko aukera baztertzeko duen zaintzaren etika transfeminista batez hitz egitea²⁰. Edonola ere, Fernández Villanueva, Artiaga eta Dávila de León-ek (2013: 78) gogorarazten digute "eraldaketa ez dela indarrez ematen, baizik eta eraginkorra eta, batez ere, iraunkorra izan dadin, desiratik eta barne onarpenetik atera behar" dela. Edo obeditzu agindu zapatistaren zazpi printzipioetako batek dioen bezala, "konbentzitu eta ez garaitu"²¹. Azken batean merkatuak erdigunetik kendu eta zaintza lehenesteko prozesu konsziente, kolektibo eta parte-hartzailea da behar duguna. Hala ere, ez da egungo errealitatea begibistatik galtzea komeni eta konsziente izan behar dugu "generoak ez markatutako jendartearen posibilitatea, zeinetan erantzukizun moral oro "pertsona" kategoriarengan jartzen diren, oraindik ere utopia bezala ikusten da". (Fernández Villanueva, Artiaga y Dávila de León, 2013: 82).

19 "Generizatutako identitateak Molina Petit-i (2008) hartu diogu maileguan.

20 Mari Luz Esteban-ek (Abasolo, 2010: 4) zaintzaren dimentsio emozionala eta afektiboa hipertrofiatzeko joera feminista gainditu beharreko arazoetako bat dela dio, lan horren ezaugarri nagusia emozionala dena ulertzeraz ematen duen "hizkera afektiboak" "eremu hau "femeninoarekin" lotzen jarraitzea kondenatzen gaitu" eta. Gehiagorako ikus: Esteban (2011).

21 "Obeditzu agindu" ("mandar obedeciendo") zapatistaren zazpi printzipioak hauek dira: 1) Zerbitzatu gainerakoak eta ez zure burua; 2) ordezkatu eta ez lekua hartu; 3) Eraiki eta ez suntsitu; 4) Obeditu eta ez agindu; 5) Proposatuz eta ez inposatu; 6) Konbentzitu eta ez garaitu; 7) Jaitsi eta ez igo.

Jatorrizko hizkuntzan, gaztelaniaz, hitz jooak dira gehienak: 1) Servir y no servirse; 2) Representar y no suplantar; 3) Construir y no destruir; 4) Obedecer y no mandar; 5) Proponer y no imponer; 6) Convencer y no vencer; 7) Bajar y no subir. Sakontzeko: <http://www.alainet.org/de/node/165932> (02/02/2018).

5. Azken ideia batzuk

Azkenik, zehaztaper labur batzuk egin nahiko genituzke gaur egun martxan dauden prozesu askatzaileen inguruan. Azken urteetan Herri Botereak paper nagusia hartzen duen estatu deszentralizatuen eraikuntzara bideratutako elaborazio teoriko eta esperientzia praktikoa desberdinak ematen ari dira. Eredu demokratiko hauetako batzuek behetik, lokaletik, abiatutako botere politikoaren arkitektura berri bat eraiki nahi dute. Hala ere, nahiz eta komunalizmotik eta demokrazia zuzenetik gertu dauden posizioetatik abiatzen diren, ez dute demokratizatzaile eta askatzailean oinarrituko eta funtsezko elementu gisa estatu liberal eta burokratikoaren aparatuen erabilpena baztertzen. "Estatu komunala"²² edo "Sozialismo Komunitarioa"²³ bezalako kontzeptuek ezker klasikoaren helburu politiko historikoak eta identitate komunitario²⁴ sendoen gainean (eta demokrazia zuzen eta komunalaren gainean) eraikitako mundu-ikuskeraren indigenen nahiak proiektu politiko bakar batean artikulatzeko beharra agerian jartzen dute. Hala ere, estatu deszentralizatuen, desburokratizatuen eta parte-hartzaileen ulerkerak eta eraikuntzak ez du zertan bere horretan zaintza lehenestea ekarri. Carrascok (2014b: 28-39), ekonomia feministaren proposamenak erroko aldaketa dakarrela adierazi ondoren, giza bizitza eta bizitza ekologikoaren

22 Venezuelako Errepublikari Boliviari erreko Asanblada Nazionalak onartutako Komunen Lege Organikoak (2010: 8) horrela definitzen du **Estatu komunala**: "Errepublikako Konstituzioan ezarritako justizia eta zuzenbidezko Estatu demokratiko eta sozialean oinarritutako antolaketa eredu politiko-soziala, zeinetan boterea zuzenean herriak egikaritzen duen, autogobernu komunalen bidez, jabetza sozial eta garapen endogeno eta sostengarri ekonomia eredu batekin, horrela jendarte sozialistan venezuelarren zorian-tasun gorena lortu ahal izateko. Estatu komunalaren osaeran oinarrituko forma Komunala da". Venezuelako demokrazia sozialista parte-hartzailearen aurrera eta atzera-pausoak sakontasunean aztertzeke ikus: López Sánchez (2015).

23 Boliviako Estatu Plurinazionalako presidenteordeak, Álvaro García Linerak, horrela definitzen du **Bizitza Onaren Sozialismo Komunitarioa**: "Sozialismoa gainezka egiten duen demokrazia da, mugimendu sozialean auto-antolatutako jendartearen esku sozializatu-tako erabakiak dira (...) Sozialismoa da demokraziak bere forma guztietan herrialde honetako pertsona guztien bizitzaren egunerokotasuneko erabaki guztiak zeharkatzea da; kulturatik politikara; ekonomiatik hezkuntzara. Eta, noski, Sozialismoa ondasun komunak eta hauen kudeaketa komunitarioa hedatzeko borroka nazionala eta nazioartekoa da, ura, osasuna, hezkuntza, zientzia, teknologia, ingurugiroa..." (García Linera, 2015: 70).

24 Gainera, Federick (2013: 244) gaineratzen du, gutxienez, zapatistak lehen aldiz 1994ko urtarrean San Cristóbal de las Casas-en publikoki agertu zirenetik "komunaren kontzeptua babesleak irabazten joan da ezker erradikalaren artean, bai Estatu Batuetan bai nazioartean, anarkisten, marxisten/sozialisten, ekologisten eta ekofeministen arteko **topagune eta ekintza gune komun** bezala agertuz". Esaldi honek ondo adieratzen du komun-aren kontzeptuak korrante kritiko desberdinen artean aliantzak eraikitzeke duen gaitasuna.

aldeko apustua egiten duten heinean, ekonomia feministatik urrun ez dauden bestelako posizio apurtzaile, askatzaile eta zintzoak ere badaudela dio. Hala ere, ñabardurak egiten ditu "ekonomia feministarekiko alde nagusia da ikuspegi horiek begirada eksklusiboki mundu publikoan mantentzen dutela. Beraientzako, bizitzaren aldeko apustua egiteak pertsonen esplotazio kapitalistaren alde ez egitea esan nahi du, (...) edo agian ingurugiroarekiko jasangarriagoak diren ekoizpen eta kontsumo forma berriak. Hala ere, ekonomia feministak ez bezala, ez dituzte zaintza lanak pertsonen eta bizitzaren sostengarritasunerako funtsezko aspektu gisa ulertzen eta ez dituzten erantzukizun politiko eta sozial gisa kokatzen". Itsutasun edo ahanztura patriarkala deitzen dio honi. Hausnarketa honek beste behin ere mugimendu sozialen eta korrante teoriko kritiko desberdinen arteko aliantzen eraikuntza beharrera garamatza, antikapitalismo ekofeminista anitz bat eraiki ahal izateko.

Botere politiko eta ekonomikoaren arkitektura berri hau herritar sektore sozialek gauzatu behar badute, aliantzen eraikuntza ezinbestekoa bihurtzen da. Oinarritzea da jarrera dogmatiko eta ortodoxoak alboratu, eta korrante politiko eta mugimendu sozial kritiko desberdinen arteko elkarrizketa eta elkarrekintzari espazioa irekitzea. Zapalkuntza Sistema Anizkoitza osatzen duten bost elementuak (kapitalismoa, heteropatriarkatua, produktibismoa, intentsitate baxuko demokrazia eta kolonialitatea) gainditzeko mugimendu zabalak josi behar dira. Apustuaren oinarria, beraz, ikuspegi askatzaile intersektionalen sorrera kolektiboa da, mugimendu eta korrante teoriko feminista, antikapitalista, ekologista, dekolonial, indigena, etab. desberdinen ekarpen teoriko-praktikoak jaso eta barnebilduko dituztenak.

María de Jesús Patricio Martínez-ek (Marichuy-k²⁵), Gobernu Kontseilu Indigenako bozeramaile eta 2028ko hauteskunde federal mexikarretarako CNI-EZLN-ren presidentetzarako hautagai independenteak dioten bezala "gure borroka behetik gora da, gure borroka bizitzarengatik da. Existitzen jarraitu nahi badugu, antolatu eta ados jartzea besterik ez dugu."

25 Ikus <http://www.proceso.com.mx/512048/nuestra-lucha-alla-2018-ante-inminente-represion-despojo-marichuy-a-morelenses> (2018/02/02)

4. Bibliografía

- Abasolo, Olga (2010). "Diálogo: Mari Luz Esteban e Isabel Ochoa sobre el concepto de cuidados", Boletín ECOS, núm. 10, enero-marzo.
- Álvarez, Víctor (2009). "La transformación del modelo productivo venezolano", Seminario 'Intelectuales, democracia y socialismo', Caracas.
- Álvarez, Víctor (2010). "Del Estado burocrático al Estado comunal. La Transición al socialismo de Revolución Bolivariana", Centro Internacional Miranda, Caracas.
- Arruzza, Cinzia (2010). Las sin parte. Matrimonios y divorcios entre feminismo y marxismo, Izquierda Anticapitalista.
- Barcena, Iñaki (2015). "El eco-socialismo-feminista frente a la crisis civilizatoria", Letamendía Goitia, F., Engelken-Jorge, M., Cortina Oriol, M., Bergantiños, N., & Universidad del País Vasco. Contextos y perspectivas de la democracia: ensayos en honor a Pedro Ibarra Güell. Arre (Nafarroa): Pamiela.
- Bosch, Anna; Cristina Carrasco Y Elena Grau (2005). "Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo". Pp. 321-346 en La historia cuenta, editado por E. Tello. Barcelona: El Viejo Topo.
- Brujas y Diversas (2015). Juntas y diversas: Compartiendo propuestas: Mujeres migradas en Euskal Herria. Disponible en: <http://mujeresdelmundobabel.org/files/2011/12/juntas-y-diversas-color.pdf> (Consultado el 02/02/2018).
- Carrasco Bengoa, Cristina (2001). "La sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres?", Mientras Tanto, núm. 82, pp. 43-70.
- Carrasco Bengoa, Cristina (2011a). "La economía del cuidado: planteamiento actual y desafíos pendientes", Revista de Economía Crítica, núm. 11, primer semestre, pp. 205-225.
- Carrasco Bengoa, Cristina (2011b). No es una crisis, es el sistema. Disponible en: <http://www.feministas.org/IMG/pdf/6- No es la crisis es el sistema- Cristina Carrasco.pdf> (consultado el 02/02/2018).
- Carrasco Bengoa, Cristina (2013). "El cuidado como eje vertebrador de una nueva economía". Cuadernos de relaciones laborales, Vol. 31, núm. 1, p. 39-56.
- Carrasco Bengoa, Cristina (2014a). "Introducción", en Carrasco, Cristina (ed.). Con voz propia: la economía feminista como apuesta teórica y política, Madrid: La Oveja Roja, 2014 (250pp.) ISBN: 978-84-16227-01-3.
- Carrasco Bengoa, Cristina (2014b). "La economía feminista: ruptura teórica y propuesta política", en Carrasco, Cristina (ed.). Con voz propia: la economía feminista como apuesta teórica y política, Madrid: La Oveja Roja, 2014 (250pp.) ISBN: 978-84-16227-01-3.
- Carrasco, Cristina, Borderías, Cristina y Torns, Teresa (2011), "Introducción. El trabajo de cuidados: antecedentes históricos y debates actuales", pp. 13-95. en Carrasco, Cristina, Borderías, Cristina y Torns, Teresa (eds.), El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas, Madrid, Catarata pp. 13-95.
- Carrasquer Oto, Pilar (2013). "El redescubrimiento de cuidados: algunas reflexiones desde la sociología". Cuadernos de Relaciones Laborales, Vol. 31, núm.1, p. 91-113.
- Ceceña, Ana Esther (2004). "El zapatismo. De la inclusión de la nación al mundo en el que quepan todos los mundos" en Gómez, José María comp América Latina y el (des)orden social neoliberal. Buenos Aires: CLACSO.
- De Miguel, Ana (2005). "La articulación del feminismo y el socialismo: el conflicto clase-género", en C. Amorós y A. de Miguel (eds), Teoría feminista: de la Ilustración a la globalización. Minerva Ediciones, Madrid. Tomo 1.
- De Miguel, Ana (2014). "La dialéctica de la Teoría Feminista. Lo que nos une, lo que nos separa, lo que nos hace avanzar". Daimon: Revista de filosofía, (63), 191-206.
- Escobar, Arturo (2003). "Mundos y conocimientos de otro modo. El programa de investigación colonialidad/modernidad latinoamericano". Tabula Rasa, (1) Disponible en: <http://www.unc.edu/~aescobar/text/esp/escobar-tabula-rasa.pdf> (consultado el 02/02/2018).
- Escobar, Arturo (2010). Una minga para el postdesarrollo: lugar, medio ambiente y movimientos sociales en las transformaciones globales, Programa Democracia y Transformación global. Universidad de San Marcos, Lima.
- Esteban, Mari Luz (2011). "El amor sustenta las desigualdades sociales. Entrevista de Belén Macías e Irene G. Rubio", en WAA, Voces desde los feminismos. Entrevistas diversas y singulares, Diagonal, pp. 123-130.

Federici, Silvia (2013). *Revolución en punto cero. Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas*, Madrid, Traficantes de Sueños.

Fernández, Concepción; Alba Artiaga y M^a Celeste Dávila (2013). "Cuidados, género y transformación de identidades". Cuadernos de Relaciones Laborales 31 (1): 57189. 69'(245):1711198.

Fernández, Gonzalo (2012). *Movimientos sociales y cooperación: Aproximaciones a una agenda pública emancipatoria de solidaridad*, Manual didáctico para el Master on-line de Estrategias, Agentes y políticas de cooperación para el desarrollo. (<http://admin.isf.es/UserFiles/File/catalunya/movimientos%20sociales.pdf>) (consultado el 25/05/2016).

Fernández, Gonzalo, Piris, Silvia, Ramiro, Pedro (2013). *Cooperación internacional y movimientos sociales emancipadores: bases para un encuentro necesario*. Hegoa, Bilbao, disponible en: <http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/295> (consultado el 02/02/2018).

Fraser, Nancy (1992). *Repensando la esfera pública. Una contribución a la crítica de la democracia actualmente existente*. http://estudios.sernam.cl/img/uploads/fraser_esfera_publica.pdf (consultado el 02/02/2018).

García Linera, Álvaro (2015). "Socialismo comunitario. Un horizonte de época" *Vicepresidencia del Estado Plurinacional de Bolivia*. Recuperado de: http://www.vicepresidencia.gob.bo/IMG/pdf/socialismo_comunitario-2.pdf (consultado el 02/02/2018).

Harnecker, Marta (2007). *Notas para un debate sobre el poder constituyente y poder constituido*. Disponible en: <http://www.rebelion.org/docs/62325.pdf> (consultado el 11/07/2016).

Harnecker, Marta (2012). *Cinco reflexiones sobre el socialismo del siglo XXI* Disponible en: <http://www.rebelion.org/docs/147047.pdf> (Consultado el 11/07/2016).

Hartmann, Heidi (1980). "Un matrimonio mal avenido: hacia una unión más progresiva entre marxismo y feminismo", *Zona Abierta*, 24: 85-113.

Hernando Gonzalo, Almudena (2008). "Género y sexo: mujeres, identidad y modernidad". *Claves de razón práctica*, ISSN 1130-3689, N° 188, 2008, págs. 64-70.

Herrero, Yayo (2010a). "Vivir bien con menos: ajustarse a los límites físicos con criterios de justicia". *Viento Sur* n° 108. Febrero.

Herrero, Yayo (2010b). "Cuidar: una práctica política anticapitalista y antipatriarcal", C. Taibo coord., *Decrecimientos: sobre lo que hay que cambiar en la vida cotidiana*, Los Libros de la catarata, pp. 17-31.

Herrero, Yayo (2011). "La centralidad de los cuidados, las mujeres y la sostenibilidad". En *Cambiar las gafas para mirar el mundo. Una nueva cultura de la sostenibilidad*. (Eds) Y. Herrero, F. Cembranos & M. Pascual, 181–200. Madrid: Libros en acción. Ecologistas en Acción.

Herrero, Yayo (2014a). "Perspectivas ecofeministas para la construcción de una economía compatible con una vida buena" en *Sostenibilidad de la Vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica*, Reas Euskadi-Red de Economía Solidaria y Alternativa. Disponible en: http://www.dhl.hegoa.ehu.es/ficheros/0000/0879/Sostenibilidad_de_la_vida.pdf (consultado el 02/02/2018).

Herrero, Yayo (2014b). "Economía ecológica y economía feminista: un diálogo necesario", en Carrasco, Cristina (ed.). *Con voz propia: la economía feminista como apuesta teórica y política*, Madrid: La Oveja Roja, 2014 (250pp.) ISBN: 978-84-16227-01-3.

Izquierdo, Maria Jesus (2004). "Del sexismo y la mercantilización del cuidado a su socialización: Hacia una política democrática del cuidado", en CONGRESO INTERNACIONAL SARE: *Cuidar cuesta. Costes y beneficios del cuidado*. Gasteiz: EMAKUNDE-Comunidad Europea-Fondo Social Europeo.

Izquierdo, Maria Jesus (2007). "Lo que cuesta ser hombre: costes y beneficios de la masculinidad" en Congreso SARE "Masculinidad y vida cotidiana". EMAKUNDE, Donostia.

Jubeto, Yolanda (2011). "Debates sobre desarrollo y bienestar desde la economía feminista", en *Revista Pueblos* n° 49, Madrid, 15-19.

Kollontai, Alaxandra (1918). *El comunismo y la familia*. <https://www.marxists.org/espanol/kollontai/1918/001.htm> (consultado el 02/02/2018).

Lebowitz, Michael (2006). "A reinventar el socialismo" (fragmento del libro *Socialismo para el siglo XXI. Constrúyanlo ahora*), en Monthly Review Press.

Lebowitz, Michael (2008). "El camino al Desarrollo Humano. ¿Capitalismo o Socialismo?". Centro Internacional Miranda. Caracas.

Legarreta Iza, Matxalen (2014). "Cuidados y sostenibilidad de la vida: Una reflexión a partir de las políticas de tiempo". *Papeles del CEIC*, () 93-128. Recuperado de <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=76530482004> (consultado el 02/02/2018).

López Sánchez, Arkaitz (2013). *Hacia un desarrollo alternativo y una cooperación emancipadora: el caso de Chiapas*. Tesina no publicada: Máster en Desarrollo y Cooperación Internacional, curso académico 2012-2013. Hegoa, UPV/EHU.

López Sánchez, Arkaitz (2015). *Democracia y Participación Popular en la Venezuela Bolivariana*. Comunicación presentada en *¿Vuelve la política? – III congreso de análisis político crítico* organizado por el Grupo de Investigación Parte Hartuz y la UPV/EHU. <http://www.ehu.es/documents/2450856/0/POLITIKARENITZULERA-Komunikazioen+koaderno> (consultado el 02/02/2018).

López Sánchez, Arkaitz (2016). *Sostenibilidad de la vida y participación popular como ejes vertebradores de los nuevos horizontes emancipatorios: hacia la Cuidacracia Participativa*, Trabajo Fin de Máster del Máster Universitario en Estudios Feministas y de Género, 2015-2016. UPV/EHU. Publicado en: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/21497/ARKAITZ%20L%C3%93PEZ%20S%C3%81NCHEZ-.pdf?sequence=1> (consultado el 31/01/2018).

Martínez, Zesar (2014). "Astra-Gernika: de fábrica de armas a centro social autogestionado". *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 28(2) 25-38. Disponible en: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=27433840004> (consultado el 02/02/2018).

Martínez, Zesar, Casado, Beatriz y Ibarra, Pedro (2012). "Movimientos sociales y procesos emancipadores". *Cuadernos de Trabajo* 57, Bilbao: Hegoa.

Martínez, Zesar y Casado, Beatriz (2013). "Acerca de opresiones, luchas y resistencias: movimientos sociales y procesos emancipadores". *Cuadernos de Trabajo* 60, Bilbao: Hegoa.

Molina Petit, Cristina (2008). "Contra el género y con el género: crítica, deconstrucción, proliferación y resistencias del sujeto excéntrico". En Alicia H. Puleo ed *El reto de la igualdad de género: nuevas perspectivas en ética y filosofía política* (pp. 258-272). Madrid: Biblioteca Nueva.

Molinier, Pascale y Legarreta, Matxalen (2016). "Subjetividad y materialidad del cuidado: ética, trabajo y proyecto político", en *Papeles del CEIC*, vol. 2016/1, CEIC (Centro de Estudios sobre la Identidad Colectiva), Universidad del País Vasco.

Paredes, Julieta (2010), *Hilando fino desde el feminismo comunitario*, La Paz: DED.

Pérez Orozco, Amaia (2010). "Esa Cosa escandalosa, feminismo anticapitalista y otros palabros", en *WAA*, pp. 573-581.

Pérez Orozco, Amaia (2011). "Crisis multidimensional y sostenibilidad de la vida", *Investigaciones Feministas*, núm. 2, pp. 29-53.

Pérez Orozco, Amaia (2013a). *La sostenibilidad de la vida en el centro... ¿y eso qué significa?* Disponible en: https://www.researchgate.net/publication/309669671_La_sostenibilidad_de_la_vida_en_el_centro_y_eso_que_significa (consultado el 02/02/2018).

Pérez Orozco, Amaia (2013b). *Amaia Pérez Orozco, El decrecionismo ecofeminista: una alternativa política desde el feminismo*, vídeo en youtube: <https://www.youtube.com/watch?v=j5EZGYdUJCo> (consultado el 02/02/2018).

Pérez Orozco, Amaia (2014a). "Del trabajo doméstico al trabajo de cuidados", en Carrasco, Cristina (ed.). *Con voz propia: la economía feminista como apuesta teórica y política*, Madrid: La Oveja Roja, 2014 (250pp.) ISBN: 978-84-16227-01-3.

Pérez Orozco, Amaia (2014b). *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Madrid: Traficantes de sueños. 305 pp.

Pérez Orozco, Amaia y Lafuente Funes, Sara (2013). "Economía y (trans)feminismo; retazos de un encuentro", en Elena Urko y Miriam Solá (eds.), *Transfeminismos. Epistemes, fricciones y flujos*, Tafalla, Txalaparta, 2013, pp. 91-108.

Rauber, Isabel (2011). *Dos pasos adelante, uno atrás: lógicas de superación de la civilización regida por el capital*, Ediciones desde abajo, Bogotá.

Raventós, Daniel y Wark, Julie (2016). *Trabajo remunerado, trabajo doméstico, trabajo voluntario y Renta Básica*. Disponible en: <http://www.sinpermiso.info/printpdf/textos/trabajo-remunerado-trabajo-domestico-trabajo-voluntario-y-renta-basica> (consultado el 27/07/2016).

Santos, Boaventura de Sousa (2006): *Renovar la teoría crítica y reinventar la emancipación social*, CLACSO, Buenos Aires.

Uharte Pozas, Luis Miguel, (2008). *El Sur en Revolución. Una mirada a la Venezuela bolivariana*, Tafalla, Txalaparta.

Valdés, Gilberto (2009): *Posneoliberalismo y movimientos antisistémicos*, Editorial de Ciencias Sociales, La Habana.